



TABAKO KONTSUMITZEKO MODU BERRIA



ZIGARRETA ELEKTRONIKOA



Zer da?


- Bateria batek elikatzen duen gailua da. Normalean nikotina duen likido bat, hainbat konposatu aromatizatzaile eta beste gehigarri batzuk erabiltzen ditu, hala nola propilenglikola eta glizerina begetala.
- Likidoa berotu egiten da eta erabiltzaileak arnasten duen aerosol bat sortzen du
- Hainbat modu, tamaina eta gailu mota daude: batzuek zigarreta tradizionalaren antza dute, beste batzuek tanke txiki bat dute eta beste batzuek USB memoria forma dute.
- Zigarreta elektronikoko gehienek **nikotina** dute, eta, beraz, horien erabilerak mendekotasuna sor dezake..
- Gailu batzuek 20 zigarretako pakete batek adina nikotina izan dezakete. Hamar ahokadek zigarro bat erretzearen nikotina kopuru bera eman dezakete.
- Zigarreta elektronikokoak erabiltzen dituzten nerabeek **joera handiagoa dute zigarretak erretzen hasteko**



ZIGARRETA ELEKTRONIKOA

- **Nerabezaroan nikotinaren eraginpean** egoteak **ondorioak izan ditzake epe luzera**; bereziki, arretaz, ikaskuntzaz eta memoriaz arduratzen diren **garuneko** zatietan, nikotinarekiko mendekotasuna sustatzen baitute.
- **Nerabezaroan nikotinaren** eraginpean egoteak **sariak prozesatzen dituzten garuneko funtzio nagusiei** eragiten die, eta horrek gazteak nikotinarekiko **mendekotasuna** izatea laguntzen du.
- Zigarreta elektronikoko eta sortzen duen aerosoleko **produktu kimikoek** kalte egin diezaiekete birikei:
 - Diazetiloa** dastagarri gisa erabiltzen den produktu kimiko bat da, eta, arnasten denean, biriketako gaixotasun buxatzaile itzulezin bat eragin dezake, «krispeta-birikak» izenez ezagunaducir a una enfermedad pulmonar obstructiva irreversible, conocida como “pulmones de palomita”
 - Aerosolak **formaldehidoa** eta **akroleina** izan ditzake. Zigarretaren kean ere produktu kimiko toxiko horiek daude
 - Aerosolak partikula metaliko mikroskopikoak izan ditzake, hala nola **nikela**, **eztainua** eta **beruna**. Partikula horiek sakon arnas hartuta irits daitezke biriketara





TABAKO KONTSUMITZEKO MODU BERRIA



BEROKETA BIDEZKO TABAKO-PRODUKTUAK(BTP)

Zer da ?

- Elektronikoki eta errekuntzarik gabe berotutako tabako-produktua da (400º C gehienez).
- Ez dauka likidorik barruan, tabako prozesatua baizik (txikitua edo hautsa)

Osagaiak

Tabako-produktua (*stick* erako zigarreta edo kapsulan) + Berotzeko gailu elektronikoa
+
Bateria kargatzeko gailua



BEROKETA BIDEZKO TABAKO-PRODUKTUAK(BTP)

Araudia:

- Tabakoaren gainerako produktuen tratamendu berbera du:
 - Debekatuta dago adingabeei saltzea
 - Ezin da erabili ohiko tabakoa erretzea debekatuta dagoen espazioetan
 - Debekatuta daude produktu horien sustapena, publizitatea eta babesak (saltokietan izan ezik)



Osasunean dituen ondorioak

- BBTek *nikotina* daukate; substantzia oso toxikoa da, eta mendekotasuna sortzeko ahalmen handia du.
- *Glizerina* eta *propilenglikola* dituzte, eta zigarreta elektronikoen antzeko aerosola sortzen dute.
- Tabako mota guztiak bezala, arriskutsuak dira osasunerako, eta *mendekotasuna* sortzen dute.
- Substantzia arriskutsuak igortzen dituzte, eta kaltegarria da horien eraginpean dauden pertsonentzat.
- Ez da erretzeari uzteko produktua.

TABAKO KONTSUMITZEKO MODU BERRIA



UR-PIPA (katxinba, shisha, narguilea, hookah ...)



Zer da?

- Tabakoaren eta lurrinen edo zaporeen arteko nahasketa bat erretzeko tresna.
- Osagaiak: oinarria urarekin, ke-hodia, euskarria eta mahuka.
- Ura erabiltzen da errekontzaren kea hozteko eta iragazteko.
- Kea mahukaren bidez xurgatzen da.

Araudia:

- **Ur-piparako tabakoa tabako-produktutzat** hartzen da.
- Ezin da kontsumitu erretzea debekatuta dagoen lekuetan.
- Erretzeko belarrez egindako produktuak ez daude tabako-produktu gisa araututa.
- Debekatuta dago 18 urtetik beherakoei ur-pipak eta ur-piparako tabakoa saltzea.



UR-PIPA (katxinba, shisha, narguilea, hookah ...)

Efectos en la salud

- Saio bat zigarreta baten kea 100 aldiz arnastearen baliokidea da.
- Saio batean **nikotina** kopuru handiagoa xurgatzen da. Berehala sortzen da **mendekotasuna**.
- Errekuntza-agentek (ikatza kasu) bere konposatu toxikoak igortzen ditu.
- Urak **ez ditu kearen substantzia toxikoak iragazten** (uretan disolbatu ezin direnak), hoztu besterik ez ditu egiten.
- Mahuka eta ahokoak partekatzeak infekzioak transmititzeko bide ematen dute.
- Inguruneko kearen eraginpean egotea kaltegarria da

